

GERTATUA

Santo Tomás egunaz
 plazan soñu jotzen
 ari giñala zaizkit
 jaun bi alderatzen;
 baserritar jatorrak
 pipa eta guzi.
 nere onduan ziran
 itz egiten asi
 (ikusirik nik jotzen
 nuben bioloya):
 —Motellak au jotzeko
 biar dik sasoya,
 au dek erremienta,
 auñen dek kitarra,
 au soñutzen beur dik
 izan atzaparra.
 Ni erdi parrez negon
 kontu oyek aitzen;
 orduan batek diyo
 bioloyai eltzen
 eta ikutzen kuerdak

biatzakin tin tan,
 etzuten utzi naire
 ezerengatikan
 batek ala dit: —Aizu
 aiskire laguna,
 gauza bat da gaur emen
 jakin nai deguna:
 —¿Au izango da nozki
 instrumento ona,
 Donosti ontan jotzen
 duten aundiyena?
 —Bada aundiyagua.
 —¿Zein, zein? jarranua!
 —¿Zein, dan? Santa Mariyan
 dagon ¡¡organua!!

 Parrez asi ta pipak
 eroririk bertan
 guztiyak chirchillatu
 ziraden oñetan.

JOSÉ ARTOLA